NAHIKO

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA
Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO

# LEHEN HEZKUNTZAKO 5. MAILA

# 1. UNITATE DIDAKTIKOA:

# NOR NAIZ NI?

# GAI ZERRENDA



## HEZKIDETZA

- Irakaslearen gida
- Familientzat Nahiko! aurkezpena

## MATERIALA

- “Nor da nor?” jolasa
- “Hitzez hitz” jolasa
- “Etiketen jolasa”
- Ikasleen koadernoa
- Familien koadernoa

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZIKETA

**Ikasle oro, neska nahiz mutil, generoko rolik gabe: bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta autonomoak.**

**Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.**



## BERDINTASUNA:

- Ikasle guztiek, neskek zein mutilek, norbere autonomia, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritartasuna lortzeko heziketa eduki dezaten.
- Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, ekin, ikasi, erabaki eta elkarbizi daitezen.

→ Nahiz arlo pribatuan nahiz publikoan Giza Eskubideak errespetatuz bizi eta elkarbizi daitezen.

→ Arazoak eta auziak biolentzia-eza erabiliz konpondu ditzaten.

→ Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten.

# LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN ZIKLOA

## NAHIKO! 5-6 Logoa

**Emakumeen aurpegi erdi gorria. Desberdintasunengatik eta tratu txarrengatik triste.**

**Emakumeen aurpegi erdi berdea. Berdintasunagatik eta tratu onengatik alai.**

**HELBURUA: aurpegi berdeak egon daitezen portaerak identifikatu eta garatu.**

## BIZITZARAKO PROIEKTU INTEGRAL PROPIOA

- Pertsona osoak eta autonomiadunak bizitzaren esparru guztietan:
    - Esparru publikoan eta pribatuan.
    - Zainketaren arloan eta ekoizpenean.
    - Familian eta gizartean.
    - Afektuetan eta kudeaketan.
- Norberaren bizitzan, familian, lanean, gizartean, eskolan, kirolean, kulturan, politikan eta abar, tratu onak eta Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.













# LEHEN HEZKUNTZAKO
# 5. MAILA

| UNITATEAK | JOLASAK |
| --- | --- |
| 1. Nor naiz ni? | Nor da nor? Hitzez hitz. Etiketen jolasa. |
| 2. Bizitza proiektua | Bizitzaren loteria. Bizitzaren jolasa. |
| 3. Konpromisoa | Bizitzaren lau hankak. Beti aurrera! |

## 1.UD, NOR NAIZ NI?

- Nork bere burua ezagutzea.
- Genero etiketa eta estereotipoetatik haratago.
- Pertsona bakoitzaren balio errepikaezina.
- Autoestimua indartzea norbera den bezala eta nahi duen bezala izateko.



# IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

## IRAKASLEAREN GIDA:

1. Helburuak eta edukiak
2. Materialak eta ekintzak
3. “Nor da nor?” jolasa
4. “Hitzez hitz” jolasa
5. “Etiketen jolasa”
6. Ikaslearen koadernoa
7. Familiaren koadernoa

NAHIKO! 5-6

# NOR NAIZ NI?

1 UNITATE DIDAKTIKOA

## IRAKASLEEN GIDA (1/2)

**Irakasle agurgarria:**
EMAKUNDEren NAHIKO proiektuan parte hartzen ari zara ikasturte honetan. Egitasmo honen helburua giza eskubideetan oinarritutako emakumeek jasatzen dituzten etxeko tratu txarren aurkako sentsibilizazio eta prebentzioa da, etorkizunean gure ikasleek pareja eta familia dutenean, hauek elkarren arteko errespetuan, parekotasuenan eta maitasunean oinarritu ditzaten, giza eskubideak nagusi daitezen, kalean bezala, bere etxean eta etxekoen artean.

“NOR NAIZ NI?” **lehendabiziko atal honetan**, beren buruari buruzko hausnarketa proposatzen diegu, bere burua hobeto ezagutu eta onartu dezaten. Bere inguruan pertsona diferente asko daudela ikusi ahal izango dute

## 4 HITZEZ HITZ

72 kartaz osatutako karta-sorta. Horietako 18 kartek pertsona baten irudia daramate, beste 18 kartak (erdikaldean gorri dutenak) hitz “gaizto” edo mingarriak (9 besteek esandakoak eta 9 norberak bere buruari esandakoak), beste 18 kartak (erdikalde berdea) besteek esandako hitz sendagarri eta onak jasotzen dituzte, eta azken 18 karta urdinek norberak bere buruari esandako hitz positibo, on eta autoestima eragileak. Pertsonen irudiak dituzten karten lau aldeak hori kolorekoak dira, beste karta guztienek berriz lau kolore ezberdin dituzte: horia, gorria, berdea eta urdina. Jokoan zehar, kartak bata bestearen alboan jarri behar direnean, kolore hauek errespetatuz egin behar da: albo gorria gorriekin, urdina urdinarekin eta abar.



Lagun asko ditut, lagunduko naute.

Ez duzu inoiz ezer ondo egiten.

Beti zaude laguntzeko prest, eskerrik asko.

tratu txarrak NAHIKO! 5-6 kidetasunez bizi

maltrato vivir entre iguales

EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA — Organismo Autónomo GOBIERNO VASCO

# AUTOEZAGUTZA, ANIZTASUNA ETA AUTOESTIMUA



















## HELBURUAK

- Emakume eta gizonen aniztasunaren aberastasun handia, pertsona zehatz bakoitzaren balio paregabea eta errepikaezina, positiboki baloratzea. Aniztasuna eta norberaren askatasuna sustatzeko eta garatzeko berdintasunaren beharraz konturatzea eta aitortzea.

- Auto-ezagutzarako errekurtsoak eskaintzea. Emakume eta gizonei ezarritako eta aniztasunaren eta norberaren askatasunaren kontrakoak diren genero aurreiritzi eta estereotipoak identifikatzeko eta gainditzeko tresnak eskaintzea.

- Nor bere buruarekiko estimua eta konfiantza garatzea, norbera den bezala eta nahi duen bezala izateko, gizon eta emakumeei jarritako etiketen gainetik. Giza Eskubideen markoan, pertsona bakoitzak nola izan eta nola bizi aukeratzeko duen eskubidea aitortzea y bermatzea.

# GENERO ESTEREOTIPO ETA AURREIRITZIAK IDENTIFIKATU







**Genero estereotipoa: pertsona bati, duen sexuagatik, bere izaera eta bizimodua mugatzen edota baldintzatzen dion estereotipo edo etiketa.**

## GENERO ESTEREOTIPO EDO ETIKETA "GORRIAK"

**Sexuaren araberako estereotipo negatiboak edo debekuak dira. Adibidez:**

- **Neskek ezin dute ausartak, erabakiorrak, protagonistak eta abar izan.**
- **Mutilek ezin dituzte sentimenduak edota sentsibilitatea azaldu, ez dakite elkarbanatzen, zaintzen eta abar.**

## GENERO ESTEREOTIPO EDO ETIKETA "BERDEAK"

**Sexuaren araberako estereotipo positiboak edo baimenak dira. Adibidez:**

- **Neskentzat: langileak, ordenatuak, atseginak...**
- **Mutilentzat: ausartak, eraginkorrak, kementsuak...**

**Hala ere, etiketa "berde" hauek soilik batzuentzako direnez, bereiztu, sailkatu, batzuei baimena eman eta besteei ez... diskriminatu egiten dute. → ETIKETAK BETI ETIKETA!**

# NORBERA DEN BEZALAKOA, IZAN NAHI DUEN BEZALAKOA, ETIKETARIK GABE

## PERTSONA GUZTIEK, NESKEK ZEIN MUTILEK, ESKUBIDE ETA TRATU BERDINA

**Aukera eta baldintza berberak:**

**- Nahi duten bezalakoak izateko.**

**- Bizitzaren eta gizartearen esparru guztietan egon eta jarduteko.**

**- Gizartearen onarpen eta balio berberarekin.**

## UNITATE DIDAKTIKOAREN HELBURUA

**- Etiketa gorriak aurkitu eta ezabatu.**

**- Etiketa berdeak guztiontzat, edonorentzat.**

**Hau da:**

**→ ETIKETARIK EZ, ESKERRIK ASKO!**

**→ GENEROKO ESTEREOTIPORIK EZ, ESKERRIK ASKO!**



5 ETIKETARIK EZ, ESKERRIK ASKO

**"Etiketen Jolasean"** ikusi izan ahal duzu etiketa onenak ere gezurra direla eta mugak eta trabak jartzen dizkietela pertsonei diren bezala eta izan nahi duten bezala izateko. Idatzi itzazu izkinako etiketetan neskaemakumeei eta mutil-gizonei buruz esaten diren gauza onak, eta erdikoan, batetik eta bestetik harturik, zuk zeuk dituzunak edota izan nahi dituzunak.

# HIRUHILEKOAREN ANTOLAKETA

**Unitate didaktikoaren materiala hiruhilekoan zehar erabili**



## PAUSOAK

→ **Hasieran:**

- Familiei Nahiko! programaren aurkezpena.

→ **Asteroko saioetan ikasleekin:**

- “Nor da nor?” jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- “Hitzez hitz” jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- “Etiketen jolasa” jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- Ikasleen koadernoa bete, jolasak barneratzeko. Zatika egiten joan daiteke.

→ **Eskolan landu ondoren:**

- Familien koadernoa etxera bidali etxekoekin landu, hausnartu eta partekatzeko. Zatika egiten joan daiteke.
- Ez da “etxeko-lana”, ez da eskolan “zuzenduko”. Erabileraren eta etxean lortutako giroaren jarraipena egingo da.

# FAMILIEI AURKEZPENA



## INFORMAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA ELKARLANA:

- "Nahiko! LH5 familiak" pdf-ko aurkezpen lagungarria erabil daiteke.
- Ikasleen lana azaldu: unitate didaktikoaren edukiak, helburuak eta materialak (jolasak, kantak...).
- Hiruhileko familien koadernoa: helburuak. Lantzeko irizpideak. Ariketa motak eta adibideak. Eskolan egingo den jarraipena.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

# ONLINE JOLASAK







## JOLASTU, BIZIARAZI, AZTERTU, HAUSNARTU:

- Lan-talderako materialak.
- Eguneroko egoerak, sentsazioak, bizipenak, sentipenak, harremanak... biziarazi eta gogoratu.
- Galdetu, aztertu, hausnartu, ulertu, eztabaidatu, adostu, iradoki, aldatu...
- Ondorioak, alternatibak, aldaketak...

## JOLAS BAKOITZAK 3 ATAL:

- Hasierako tutoriala (azalpena)
- JOLASA
- Bukaerako laburpena (hausnarketa)



# HASIERAKO TUTORIALA




## ERABILERA:

- Jolasa ezagutzeko.
- Non dago tutoriala?
  - Lehenengo zikloko jolasetan (LH1 eta LH2) irakasleari alta ematerakoan azaltzen da.
  - LH3tik aurrera berriz, ikasle bezala alta ematerakoan azaltzen da.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Tutoriala saltatzeko aukera dago botoi gorriari emanez. Adibidez, jolastu den lehen partidetan jadanik tutoriala egin bada eta jolasa jadanik ondo ezagutzen denean, ez da beharrezkoa berriro egitea.

# BUKAERAKO LABURPENA




## ERABILERA:

- Partidaren emaitzak aztertzeko eta kontzeptuak finkatzeko.
- Non dago laburpena?
  - Jokalari bakoitzari azaltzen zaio partida amaitzerakoan.
- Lehen jokaldietan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Laburpeneko galdera batzuk jolastutako partidaren araberakoak dira.

# ONLINE JOLASEKIN JARDUERAK




## 1.- JOLASTU AURRETIK, JOLASA EZAGUTU:

- Kartak eta fitxak ezagutu, marrazkien eta hitzen esanahia argitu…
- Irizpide anitzak erabiliz fitxak antolatu eta sailkatu. Pertsonaien ezaugarri komunak edota ezberdinak identifikatu.
- Kartak kopiatu eta hormairudiak egin elkarren artean erlazionatuz, osatzen dituzten testu edo irudiak gehituz. Egungo albisteekin edota gertaerekin erlazionatu.
- Nork bere burua edota beste pertsonak errespetuz ezagutu eta deskribatzeko hitzen zerrenda osatu. Erabiltzen al ditugu hitz batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat? Zergatik?
- Hitz berrien hiztegi txikia egin. Hiztegia irudi, adibide, egoera edo esaldiekin lotu…
- Karta edota fitxa berriak sortu.

## 2.- JOLASTU ONDOREN, HAUSNARTU:

- Egindakoa aztertu, zalantzak argitu…
- Jolas amaierako online laburpena bete.
- Ezkerreko laukiko ariketak egin.
- Ikasleen koadernoko ariketak egin.

tratu txarrak
NAHIKO!
kidetasunez bizi
5-6
maltrato
vivir entre iguales

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# 1.UD-KO JOLASAK

- "Nor da nor?"
- "Hitzez hitz"
- "Etiketen katea"
- "Etiketen bazterketa"









# “NOR DA NOR?” JOLASA












## PDF FORMATUA. EZ DAGO ONLINE JOLASTEKO BERTSIOA

- 54 karta, pertsonaia banarekin
- Adinaren araberako 3 talde: aiton-amonak, gurasoak, haurrak

## JOLASTEKO MODUAK
(Ikus irakaslearen gida)

- Familiak
- Lotoa
- Nor da nor




## HELBURUA

- Aniztasunari balio positiboa ematea, pertsona bakoitza errespetatu, ezagutu, tratatu...



# "HITZEZ HITZ" JOLASA, INDARRA ETA AUTOESTIMUA




## HITZEZ HITZ, PERTSONAZ PERTSONA, SEGURTASUN, KONFIANTZA ETA ASERTIBITATE INGURUNEA

- Norbere buruari esaten dizkiogun hitz positibo eta negatiboen eraginaz konturatzea.
- Besteek esaten dizkiguten eta guk besteei esaten dizkiegun hitz positibo eta negatiboen eraginaz konturatzea.

## HARREMAN UGARI ETA POSITIBOEN SARE BAT IZATEAREN GARRANTZIA

→ **NIRE SAREA: inguruko pertsonak, beraien hitzak, ekintzak, harremanak...**

→ **HELBURUA: nire sarean pertsona, hitz, ekintza, harreman... negatiboak baino positibo gehiago.**

# ON EGITEN DUTEN HITZAK ETA MIN ETA KALTE EGITEN DUTEN HITZAK IDENTIFIKATU

## 72 KARTA

- 18 pertsonaia.
- 18 karta urdin: nork bere buruari esandako hitz positiboak.

18 karta berde: besteek esandako hitz positiboak, adorea, indarra eta konfiantza ematen dutenak.

18 karta gorri: hitz negatiboak, adorea kentzen dutenak, autoestimua gutxituz.

Oso ondo pasa dut zurekin.

Hau eta gehiago merezi dut, oso txarra naiz.

Hau zaila egiten zait, laguntza eskatuko dut.

Ez duzu ezer ondo egiten.

Zeinen ondo egin duzun.

Okerrena zara.

Etorri, mesedez. Espero zaitugu.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

# JOLAS ARAUAK 1

**Jolasaren helburua, PERTSONA ETA HITZ SARE ON BAT OSATZEA da.**

**Hau da: pertsonak eta nork bere buruari eta besteek esandako hitz positibo gehiago negatiboak baino.**

**Zertarako? Hobeto sentitzeko eta ondo bizitzen laguntzeko.**

## PAUSOAK:

- **Pertsonaia baten karta aukeratu eta erdian ipini.**
- **Bere inguruan, karten alboetako koloreak elkartuz, beste kartak gehitu, sarea osatuz.**




* Online jolasaren tutorialean zehatz-mehatz azalduta

# JOLAS ARAUAK 2

**Adibidea**





# ETIKETEKIN BI JOLAS

- "Etiketen katea" jolasa
- "Etiketen bazterketa" jolasa

**HELBURUA: ETIKETEK EZ DUTELA BALIO KONTURATZEA, PERTSONAK EZ DATOZELA ETIKETEKIN BAT, KONTRA EGIN ETA GAINDITU EGITEN DIZTUZTELA (ikus adibideak)**






EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

# "ETIKETEN KATEA" JOLASA




**Bi karta mota**
**ETIKETAK ETA PERTSONAIAK**

**ETIKETAK**
- Emakumezoentzat: emakumeen ikurra.
- Gizonezkoentzat: gizonen ikurra.
- Berdeak: positiboak.
- Gorriak: negatiboak.

**DINAMIKA**
- Etiketen eta pertsonaien katea egin.
- Pertsonaia baten karta aukeratu.
- Gero, ondo doakion etiketa bat.
- Gero, ondo doakion pertsonaia bat.
- Eta horrela, txandatuz, jarraitu.

*** Online jolasaren tutorialean zehatz-mehatz azalduta**

# “ETIQUETEN KATEA” JOLAS ARAUAK 1

**Noiz doakio etiketa pertsonaiari eta alderantziz? Noiz kateatu daitezke pertsonaia bat eta etiketa bat? Hau gertatzen denean:**

**A) Pertsonaia eta etiketa sexu berekoak badira.**

**Adibidea**




**A) kate-motaren helburua: kateatutako pertsonaiak eta etiketak aztertzea eta pertsonaia asko ez datozela bat bere sexuari egotzitako etiketekin baieztatzea. → Ondorioa: pertsonen aniztasuna dela eta, genero-etiketek ez dute balio pertsonaia hauentzat, ez dute balio pertsonentzat.**

# "ETIQUETEN KATEA" JOLAS ARAUAK 2

**Noiz doakio etiketa pertsonaiari eta alderantziz? Noiz kateatu daitezke pertsonaia bat eta etiketa bat? Hau gertatzen denean:**

**B) Pertsonaiak eta etiketak eduki edo ekintza berbera adierazten dutenean.**




**B) kate-motaren helburua: kateatutako pertsonaiak eta etiketak aztertzea eta sexu bakoitzari egotzitako etiketa asko beste sexuko pertsonaiekin lotu daitezkeela baieztatzea. → Ondorioa: pertsonen aniztasuna dela eta, genero-etiketek ez dute balio pertsonaia hauentzat, ez dute balio pertsonentzat.**

# "ETIKETEN BAZTERKETA" JOLASA










**Bi karta mota**
**ETIKETAK ETA PERTSONAIAK**

**ETIKETAK**
- **Emakumezoentzat: emakumeen ikurra.**
- **Gizonezkoentzat: gizonen ikurra.**
- **Berdeak: positiboak.**
- **Gorriak: negatiboak.**

**DINAMIKA**
- **Etiketen eta pertsonaien bikoteak egin, beti ere etiketaren edukia eta pertsonaiaren jarduera kontrajarriak direlarik.**
- **Etiketa bat aukeratu eta mahai erdian kokatu. Ondoan, etiketari kontra egiten dion pertsonaia jarri.**
- **Karta biak baztertzeko botoia sakatu.**

**Adibidea**



# “ETIKETEN BAZTERKETA” JOLAS ARAUAK 1

**Bikote bat osatu eta baztertu ahalko da, pertsonaia eta etiketa bat ez datozenean, hau da:**

**- Irudiko pertsonaiaren jardunak bere sexuko etiketak, berdeak nahiz gorriak, egozten dionari kontra egiten dionean.**




**Adibideak**






**Helburua: baztertu diren pertsonaiak eta etiketak aztertzea eta sexu bakoitzeko pertsonai askori ezin zaiela lotu sexu horri egotzi zaizkien etiketa asko baieztatzea. → Ondorioa: pertsonen aniztasuna dela eta, genero-etiketek ez dute balio pertsonaia hauentzat, ez dute balio pertsonentzat.**

# IKASLEEN KOADERNOA

## Landutako jolasei buruzko ariketak




## HITZ EGIN, HAUSNARTU, BARNERATU, LABURTU:

- Hitzak eta marrazkiak markatu ("X" idatzi...).
- Hitzak marrazkiekin lotu. Irudiak gehitu...
- Galderak erantzun. Testuak idatzi...

**PDF betegarriak**

# FAMILIEN KOADERNOA

## Landutako jolasei buruzko ariketak




**PDF betegarriak**

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, ADOSTU:

- Hutsuneetan hitzak idatzi. Irudiak gehitu...
- Fitxak osatu. Testuak bukatu. Galderak erantzun...
- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi, zenbaki bera jarri...).

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# FAMILIEN KOADERNOAREN ERABILERA







## PAUSOAK:

1. Familiei koadernoen helburuak eta erabilera azaldu (ikus beheko laukia).
2. Eskolan landu ondoren, familiei koadernoak bidali: USBan, e-mailez, eskolako web-ean ala plataforman zintzilikatu, inprimatuta banatu…
3. Koadernoaren ariketak familiekin hitz egin, partekatu eta hausnartzeko erabili.

## TOPAGUNEA DA, AUKERA BAT, EZ “EGINBEHARRA”

→ Eskolako lanetaz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera.
→ Elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera.
→ Esperientziak, sentimenduak, balioak, erabakiak… BIZITZA partekatzeko aukera.

→ Ez dira erantzun bakarra eta egiteko modu bakarra duten ariketak.
→ Ez da beharrezkoa dena idaztea, dena erantzutea eskolara bidaltzeko.
→ Helburua, familian erabiltzea da, eskolaren laguntza eta jarraipenarekin.

# ONLINE MATERIALA ERABILTZEKO INFORMAZIO GEHIAGO

## “ONLINE JARRAIBIDEAK” pdf-a

- Irakasleak materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Ikasleek materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Jolasak erabiltzeko pausoak.
- Hausnarketa: jolasaren laburpena eta koadernoak nola erabili.
- Online jolasteko ohar teknikoak.
- Irakaslea eta ikasleak online jolasetan alta emateko pausoak.
- Nabigatzailean leiho independienteak nola sortu.


NAHIKO! PROGRAMA
JARRAIBIDEAK

E. ERANSKINA: INTERNETEN BIDEZ ONLINE JOLASTEKO JOLASAK
E2. IRAKASLEA ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSUAK

16. JOLASTEKO ERA AUKERATU
Ikasleen adina eta kopurua, ordenagailu kopurua edo jolasarekin aritzen diren zenbatgarren aldia den kontuan harturik, **jolasteko era moldatu daiteke** (ikus 6.atala, 5.orrialdean):

a) Arbela digitala edo proiektorearekin. Ahal bada, 2 ordenagailurekin. Bakarra badago, **garrantzitsua: leiho independienteak zabaldu behar dira (ikus E3 eranskina).**
b) Taldeka ordenagailu bakoitzean. Binaka, adibidez.
c) Banaka ordenagailu bakoitzean.
d) Jolas talde eta partida ugari. Halakoetan, lehenengo talde bat osatu eta jolasten hasi. Ondoren, 2.taldea sortu eta jolasten hasi. Segi horrela, behar adina talde sortuz.

OHARRA: Jolasak, **gehienez 12/14 jokalari** jolasteko prestatuta daude. Hau da, pantailan aurpegitxo baten bidez 12/14 jokalari jaso eta bere txanda noiz den adierazteko.

17. IRAKASLE ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSOAK
1- **Hizkuntza** jokalari bakoitzak aukera dezake, eta jokaldi berean batzuk hizkuntza batean eta besteak beste batean aukera ematen du.

2- Jolas bakoitzean **orden honetan** eman behar dira altan irakaslea eta ikasleak. **Kontuan izan ezin direla espazioak erabili, soilik hizkiak eta zenbakiak onartzen ditu.**

3- **Irakaslearen alta** datu hauek betez egiten da:

Sar ezazu zure izena edo ezizena eta sakatu "Sartu" jokoan sartzeko.

**Kontuan izan guztiek berdin-berdin idatzi beharko duzuela ikastetxearen izena.**

10

NON DAGO MATERIALA?
http://www.emakunde.euskadi.eus/nahikoeu/-/int

- **Sarrera librea**
Nahiko! programako material eta jolas guztiak Emaku... inolako pasahitzik gabe erabiltzeko.
- **Zikloka antolatuta dago informazioa**
LHko lehenengo zikloa, bigarren zikloa eta hirugarre...
- **Ziklo bakoitzean 6 Unitate Didaktiko**
Unitate Didaktiko baten adibidea.

1 UD: Gorputza. Berdintasunez Hazi.

1

NAHIKO

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna
EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo del
GOBIERNO VASCO